



FINANTZA ZUZENBIDEA PREMIAMENDU-PROZEDURA

1

Ines Maria eta Jose Luis BURLADA ETXEBESTE

AURKIBIDEA: I Sarrera.-II. Premiamendu-prozeduraren izaera.-III. Administrazioaren ahalmenak.-IV. Prozedura ezberdinak.-V. Prozedura etetea eta hirugarrengotzak.-VI. Premiamendu-prozeduraren hasiera. Premiamendu-probidentzia. Premiamendu-errekargua. Ordainketa egiteko epea.-VII. Premiamendu-probidentziaren aurkako oposaketa arrazoiak.-VIII. Exekuzioaren faseak.-IX. Premiamendu-prozeduraren bukaera.

I. Sarrera

Zorra, borondatezko epealdian (bi kasu bereizi behar dira, izan ere, exekuzio-aldia hasten da (TLOren 161. art.): (1) Administrazioak *likidatutako* zorrak direnean, araudian haiek ordaintzeko jasota dagoen epea amaitu ondorengo egunean; (2) Diru-sarrera egin gabe aurkeztutako *autolikidazioaren* bidez ordaindu beharreko zorrak direnean, tributu bakoitzaren araudian ordaintzeko ezarritako epea amaitu ondorengo egunean edo, hura bukatu bazen, autolikidazioa aurkeztu ondorengo egunean) ez denean ordaintzen, exekuzio-aldia hasten da. Borondatezko epealdia bukatuta, ordaindu gabe, zuzenean exekuzio-aldia hasten da. Aldiz, premiamendu-prozedura ez da modu automatikoan irekitzen; Administrazioak administrazio-egintza bat eman behar du: premiamendu-probidentzia; hau da exekuziozko titulua eta jakinarazten denean subjektuari premiamendu-prozedura hasten da.

Premiamendu-probidentziaren helburua subjektuaren zorrak kobratzea da, bere ondarea exekutatu. Esan bezala, premiamendu-prozedura premiamendu-probidentzia jakinarazita hasten da, eta subjektuak ordaindu gabe jarraitzen badu, bere gauzak enbargatzen dira eta azkenean besterenganatu (normalean, enkantean).

II. Premiamendu-prozeduraren izaera

Administrazioaren autobabesaren adierazpena da, berak adierazten ditu bere eskubideak eta berak exekutatu. Hiru ezaugarri nagusi ditu:

(1) Administrazio-prozedura da. Tributu Administrazioak, berak bakarrik, garatzen du. Ofizioz hasi eta garatzen da.

(2) Exekuzio-izaera du. Horrengatik, zorrik badagoen edota bere zenbatekoa ezin dira eztabaidatu (bazter batera utziz ordaindu zela edo iraungi zela). Oposaketa arrazoiak mugatuak dira: prozedura gaizki hasi edo garatu zela.

(3) Prozedura autonomoa da: judiziozko prozedurekin edo bertze exekuzio-prozedurekin ezin da metatu.



III. Administrazioaren ahalmenak

Administrazioak, zorrak kobratzeko, subjektuaren ondarea exekutatu behar du, eta, horretarako, Bilketa Administrazioak ikuskatzaileen ahalmen berdintsuak ditu. TLOren 162. artikulua 142. artikuluko ahalmenak izango dituela dio (azken artikulua hau ikuskapenaren atalean dago). Beraz, ahalmenak dira:

- (1) Tributu-betebeharpekoen gauzak egiaztatu eta ikertu, ikuskatzaileek bezala (adib., liburuak aztertu, agintaritza agenteak dira,...).
- (2) Kautelazko neurriak har ditzakete, gero exekutatu behar diren gauzak eta eskubideak ez desagertzeko.
- (3) Tributu-betebeharpekoari eska diezaiokete bere gauzen eta eskubideen zerrenda aurkeztea.
- (4) Tributu-betebeharpekoak bete ez zituen errekerimenduak exekuta ditzake.

IV. Prozedura ezberdinak

Premiamendu-prozedura autonomoa da, bertze exekuzio-prozedurekin ezin da metatu, baina posible da Administrazio Publikoak, premiamendu-prozedura eramaterakoan, bertze exekuzio prozedurak izatea, singularrak edo unibertsalak, judiziozkoak edota ez. Kasu honetan jakin behar da prozedura bakoitzean egindako enbargoen artean, zeinek duen lehentasuna (exekuzio singularrak) edota zer espedienteak duen lehentasuna (unibertsalak). TLOren 164.1 artikuluan prozedura singularren eta unibertsalen artean bereizten da: lehendabiziko kasuan, *enbargoaren* antzinakotasuna kontuan hartzen da: premiamendu-prozeduraren enbargo-eginbidea lehenagotik egin bazen, lehentasuna du, eta alderantziz. *Konkurtsu* egoeran, antzinakotasuna ere kontuan hartzen da; baina, konkurtsu egoera aitortu zen unean. Premiamendu-probidentzia une hori baino lehen egin bazen, Administrazioaren exekuzioak lehentasuna izango du.

V. Prozedura etetea eta hirugarrengotzak

Premiamendu-prozedura hiru kasutan eteten da (TLOren 165. art.): helegitea jarri eta etendura lortzean; prozeduran akatsak daudenean eta jabetza hirugarrengotza aurkezten denean. Helegitea jartzean eta bermea eskaini normalean prozeduraren etetea lor daiteke. Bestalde, etetea modu automatikoan eta bermerik gabe lortzen da zorra zehazterakoan errakuntza materiala gertatu zenean, edota zorra iraungita bazegoen (adib., ordainketa egin zelako, preskripzioa gertatu,...) edota gerorapena lortu bazen; premiamenduak ez dauka zentzurik eta horrela adierazi behar da.

Zorra zehazterakoan errakuntza materiala gertatu bazen, organu eskudunak likidazioa zuzendu behar du.



Hirugarrengotza gertatzen da, premiamendu-prozeduran enbargatutako gauzaren aurka hirugarren batek bere nahia agertzen badu. Hirugarrengotza jabetzarena edo eskubidearena izan daiteke. Lehendabiziko kasua gertatzen da hirugarrenak ulertzen badu enbargatutako gauza berea dela eta eskubidearena, aldiz, bere kredituak lehentasuna duela Ogasun Publikoaren gain (adib., soldaten kasuan) (TLOren 165.3 art.). Hirugarrengotza *jabetzarena* bada, eskatutako gauzaren gain premiamendu prozedura eteten da (TLOren 165.4 art.). Inskribatutako gauza bada, onartzeko Erregistroaren ziurtagiria aurkeztu behar da, frogatuz inskripzioa Ogasun Publikoak egindako idatzoharra baino lehen eginga dela. Horrela bada, enbargoa altxatzen da. *Eskubidearen* ingurukoa bada, prozedura ez da eteten, gauza saldu arte jarraitzen du; lortutako dirua gordailuan uzten da, hirugarrengotza erabaki arte.

VI. Premiamendu-prozeduraren hasiera. Premiamendu-probidentzia. Premiamendu-errekargua. Ordainketa egiteko epea

Aipatu bezala, premiamendu-prozedura hasten da premiamendu-probidentzia jakinaraztean. Hau administrazio-egintza bat da eta bertan ordainketa eskatzen da, probidentzian emandako epean ez bada ordaintzen, ondarearen exekuzioa egingo dela ohartuz. Subjektuentzat ohar bat da, azken aukera ematen zaio ordainketa egiteko. TLOren 167.2 artikulua arabera, titulu nahikoa da premiamendu-prozedura hasteko eta tributuetan betebeharrekoen gauzen eta eskubideen aurka egiteko, epai judizialaren exekuziozko indar bera dauka.

Lehen, exekuziozko titulua agerian uzten zuen ziurtagiria zen. Administrazioak egiten zuen eta tributuen bilketa egiten zuenari eman eta hau exekuziozko fasea egiteaz arduratzen zen. Bilketa egiten zutenak Administrazioaren barruan ez ziren sartzen, profesionalak ziren. Gero, Administrazioa bera hasi zen zuzenean exekuzioa egiten eta ziurtagiriaren lekua premiamendu-probidentziak hartu zuen.

Premiamendu-probidentziaren edukia da (Bilketa Erregelamendu Orokorren 70. art.):

- (1) Subjektuaren identifikazioa.
- (2) Zorraren kontzeptua, zenbatekoa eta epealdia.
- (3) Adierazpena, borondatezko epealdian zorra ez zela ordaindu eta berandutza-korrituak noiztik hasten diren zenbatzen.
- (4) Exekuzio-aldiaren errekarigaren likidazioa.
- (5) Zorra ordaintzeko errekerimendua, premiamendu-errekargu txikiarena ere: % 10a.
- (6) Zorra gehi premiamendu-errekargu txikia emandako epean ez badira ordaintzen, bere gauzak enbargatzen hasiko direla edota bermeak exekutatzeko adierazi behar da, tributuetan zorra gehi % 20eko errekarigua kobratzeko.
- (7) Probidentziaren data.



TLOren 161.4 artikulua dio, exekuzio-aldia hasteak exekuzio-aldiaren errekaraguen sortzapena suposatzen duela. TLOren 28. artikulua errekaru ezberdinak ezartzen ditu:

(1) % 5a, zor guztia ordaintzen bada exekuzio-aldia hasita, premiamendu-probidentzia jakinarazi baino lehen. Exekuzio-aldiko errekarua da.

(2) % 10a, ordainketa, premiamendu-probidentzia jakinarazi eta gero egiten bada, zehazki, bertan emandako epean. Premiamendu-errekaru gutxitua da. Emandako epean zorra eta errekarua bera ordaindu behar dira.

3) % 20a, ez bada zorra ordaintzen bi epe horietan.

Premiamendu-errekaru arrunta bateragarria da berandutza-korrituekin. Betearazpen-aldiko errekarua edo premiamendu-errekaru murriztua galdagarria gertatzen denean, exekuzio-aldia hasi denetik sortutako berandutza-korrituak ez dira eskatzen.

Ordainketa egiteko epeak bi dira (TLOren 62.5 art.):

(1) Premiamendu-probidentziaren jakinarazpena hilaren lehendabiziko hamabostaldian egin bazen, jakinarazpena jaso zen unetik, hilabete beraren 20a arte.

(2) Premiamendu-probidentziaren jakinarazpena bigarren hamabostaldian egin bazen, jakinarazpena jaso zen egunetik hurrengo hilaren 5a arte.

VII. Premiamendu-probidentziaren aurkako oposaketa arrazoiak

Premiamendu-probidentzia exekuzio-titulua denez, oposaketa arrazoiak mugatuak dira. Likidazioaren inguruko eztabaidak ezin dira erabili. Kariak TLOren 167.3 artikuluan biltzen dira:

(1) Zorra *osorik* iraungi izana, edota ordainketa eskatzeko eskubidea preskribatuta egotea. Subjektuak ordaindu zuela frogatzen badu, ez dago arrazoirik premiamendu-prozedura erabiltzeko. Preskripzioaren kasuan, bakarrik oposa daiteke ordainketa *eskatzearen* eskubidearena; likidatzeko akzioaren preskripzioa ezin da alegatu, hau alegatu behar da likidazio fasean.

(2) Geroratzearen, zatitzearen edo konpentsazioaren eskaera egitea *borondatezko* epealdian; eta bilketa prozeduraren bertze etete arrazoiak. Geroratzea *borondatezko* epealdian eskatzeak exekuzio-aldia ezin dela hasi suposatzen du. Eskaera erabaki arte ezin da premiamendu-prozedura erabili. Konpentsazioa *borondatezko* epealdian eskatzen denean, zorra ezin da exekutatu subjektuak daukan kreditu zenbatekoa arte. Konpentsazioaren eskaera exekuzio-aldian egiten bada, prozedura eteten da.

(3) Likidazioaren jakinarazpena ez egitea.

(4) Likidazioa deuseztatu izana.

(5) Premiamendu-probidentzian errakuntza edo hutsuneak agertzea, zorduna edo zorra identifikatzea galarazten badute.



VIII. Exekuzioaren faseak

Subjektuak, premiamendu-probidentzia jakinarazita bertan emandako epean ez badu zorra ordaintzen, eta premiamendu-probidentziaren aurkako oposaketa arrazoirik ez bada, bere ondarea exekutatzen da, legeak ezarritako hurrenkerara jarraituz, eta ondokoa da:

(1) *Bermeak exekutatzen dira* (TLOren 168. art.). Zorra bermatua bazegoen, Administrazioak premiamendu-prozeduran berme horiek exekutatzen ditu. Bermeak bi motatakoak dira: a) *Ope legis* ezartzen direnak (isilbidezko lege hipoteka, afekzio eskubidea eta atxikipen eskubidea); b) Subjektuak eskaintakoak (adib., geroratzea eskatu zuelako). Hala ere, bermea exekutatu baino lehen, Administrazioak bertze gauzak edo eskubideak enbarga eta besterengana ditzake, bermea zor guztia ordaintzera ez bada iristen edota subjektuak eskatzen badu.

(2) *Gauzak eta eskubideak enbargatu* (TLOren 169-171. art.). Enbargoek proportzionaltasun printzipioa errespetatu behar dute, hau da, zorra kobratzeko gain izan behar dute, ez aunitz gehiago. Kontuan hartu behar den zenbatekoa da: zorra + berandutza-korrituak + premiamendu-errekargua + prozeduraren kostuak. Jarraitu behar den hurrenkerara da:

- (a) Eskudirua eta erakundeetan dagoen dirua.
- (b) Kredituak, efektuak, balioak eta eskubideak, epe motzean egikaritzen badira (sei hilabete baino gutxiago).
- (c) Soldatak eta pentsioak.
- (d) Gauza higiezinak.
- (e) Errentak, korrituak eta fruituak.
- (f) Merkataritza eta industri alorreko establezimenduak.
- (g) Bitxikeriak, zaharkinak, eta abar.
- (h) Gauza higigarriak eta semobienteak.
- (i) Kredituak, eskubideak eta balioak epe luzean egikaritzen direnean (6 hilabete baino gehiago).

Enbargoak, hurrenkerara hori jarraituta egiten dira, zor guztia hartu arte. Nolanahi ere, azkenik enbargatzen dira tratatuak izateko zergapekoak konstituzionalki babestua duen helbidean sartzea eskatzen duten ondasunak eta eskubideak, betebeharpekoak ez bada baimenik ematen, epailearen baimena behar delako.

Enbargo bakoitza dilijentzian agertu behar da eta subjektuari jakinarazten da. Enbargo-eginbidearen aurkako oposaketa arrazoiak mugatuak dira: zorra iraungi zela, premiamendu-probidentzia ez zela jakinarazi, enbargoaren araudia ez zela errespetatu eta bilketa prozedura esekita egotea.

Gauzak Erregistro Publiko batean inskribatuta badaude, bertan idatzoharra egiten da, epailearen aginduak daukan indar berarekin.



(3) *Enbargatutako gauzak besterenganatzea*. Legeak adierazten du besterenganatzea ez dela posible likidazioaren aurkako helegitea erabaki arte, salbu ezinbesteko kasuetan, gauzak hondagarriak badira edota euren balioa gutxitzeko arriskua badago, edota tributu-betebeharpekoak espresuki eskatzen badu. Besterenganatzea egiten da enkante, konkurtso edo zuzeneko adjudikazioen bidez. Normalean *enkantea* erabiltzen da, eta soberakinik gelditzen bada tributu-betebeharpekoari ematen zaio. *Konkurtsoa* bakarrik erabiltzen da enbargatutako gauza saltzeak merkatuarentzat kaltea suposatzen badu edota interes publikoak bide hau erabiltzea eskatzen badu. *Zuzeneko adjudikazioa* erabiltzen da, enkantea erabilia, gauzak edo eskubideak besterenganatu gabe gelditzen badira edota gauzak hondagarriak badira edota premia badago. Azkenean, gauzak besterenganatzea ez bada lortzen, Ogasun Publikoak beregana ditzake zorraren zenbatekoaren arte, besterenganatzearen hasierako tipoaren % 75a gainditu gabe.

Besterenganatzea egin baino lehen, tributu-betebeharpekoak zorra eta kostuak ordaintzen baditu, enbargoa altxatzen da.

IX. Premiamendu-prozeduraren bukaera

Horretarako hiru modu daude (TLOren 173. art.):

- (1) Zorra ordainduz; hau da, zorra, berandutza-korrituak, errekarquak eta kostuak.
- (2) Erabakiaren bidez, tributu-betebeharpeko guztiak kaudimengabeak direla-eta, kreditua osorik edo zati batean ezin dela kobratu adierazten duenean. Kreditua kobraezina dela adierazi ondoren, baja ematen zaio behin-behinean. Preskripzio epe barruan, betebeharpekoaren egoera ekonomikoa hobetzen bada, kredituaren birdoikuntza gertatzen da. Bilketa sailak exekuzio prozedura berriz indarrean jartzen du. Preskripzio epea amaitzen bada, birdoikuntzarik gertatu gabe, zorra iraungita gelditzen da.
- (3) Edozein bertze legezko arrazoi dela-eta, kreditua iraungi zela erabakitzea.